

EKITALDIAK-EVENTOS / SAGARRA-MANZANA

Sagarraren Festa Hendaian, urriaren 20an.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 07/10/2013 · 14:11

Sin comentarios



Urriaren 20an, igandea, "Sagarraren Festa" ospatuko da Hendaiaiko **Gaztelu Zahar** frontoian goizeko 09:30etatik arratsaldeko 17:00etara bitartean.

Aurreikusitako egitaraua honakoa da:

- **09:30:** Gastronomía eta eskulan azokaren irekiera, tokiko sagar moten erakusketa eta salmenta. Gaztelu Zahar pilotalekuan Akitaniako kontserbatorioaren eskutik. Sagarnoa egiteko tresneriaren erakusketa eta salmenta.

- **10:00:** DZIEZYC FAMILIAK egindako SAGARRAK karro apainduaren aurkezpena (Hendaian bilduriko sagarrez kargaturik), Bidasoako Sagardozaileen

Kofradiako kideekin eta haien gomitatuekin.

- **10:30:** Sagarren lehortzearen hasiera, lehengo gisan, Txalapartak eta Kirikoketak lagundurik, Bizkaiko Meatzaldeko Harrigorria taldeko kideekin. Sagarren prentsaketa eta zukuaren bilketa, Azkaingo Txopinondo Sagarnotegiko Dominik Lagadec sagardogilearen ardura pean. 2013ko zukuaren kupeleratzea, 2014ko Bixintxoko festetarako gordeko dena. Animazioa Zarpai Bandaren eskutik.

- **11:00:** Behe Bidasoako haranean 2012. urtean eginiko sagarnoen dastaketa, sagarnotan egositako txorizoarekin. Parte hartzaileak: Aramburu Ganbotzenia (Ziburu), Camino Berri (Biriatu), Borda Berri (Hendaia), Borda Berri (Hondarribia), Burni Etxeberria (Hondarribia), Daguerre (Ainhoa), Garbisu (Biriatu), Garbisu (Ziburu), Olaizola Larrekia (Oleta) eta José Fadon (Ziburu). Bidasoako Sagardozaileen Kofradiaren 2012ko sagardoak: Aturritxasu, Bordaberitxasu, Burni Bordaberri, Burni, Errekondoletasanto, Burnierrekondoleta, Santxoburni, Istillarte eta Bordaberri Istillarte.

- **11:30:** Bidasoako Sagardozaileen Kofradiaren laugarren Biltzarra. Ohorezko kideen tronuratzeta.

- **12:00-13:00:** Hendaian Kantuz. Euskal kantu tradizionalak, denei irekia. Liburuxkak bertan salgai (5€). Goiz guztian zehar, bertan eginiko sagar zukuaren dastaketa. Sagarnotegi-bazkaria (16€) urriaren 15a aurretik erreserba egin dutenentzat bakarrik (txartelak salgai Festa Komitean edo Turismo Bulegoan). Menua: bakailao tomatearekin, entrekota, Idiazabaleko ardi gasna Anixa sagar gozokiarekin, sagar tarta, kafea eta pattarra. Hendaiaiko sagarnoa nahi bezala. Josenri orkestrak alaiturik.

- **17:00:** Merkatu Zaharreko Plazan, Herriarteko Harmonia Orkestraren kontzertua, René Zugarramurdi-ren zuzendaritzapean. Eguraldi txarra balitz, Hiri-barneko 1. mailako eskolako entsegu gelan iraganen da.

Filma musika programa berezia:

- Willow (J. Horner)
- Les Aventures de Tintin (J.W. Morgan – R. Parker)
- Unchained Melody (A. North)
- Le Cid (M. Rozsa)
- Star Trek (Mc Cartney)
- Titanic-Medley (J. Horner)
- The Wrong Note Rag (L. Bernstein)
- La Saga du Parrain (N. Rota)
- Avatar Soundtrack Highlights (J. Horner)
- Harry Potter et le prisonnier d'Azkaban (J. Williams).

Tags: Fiesta de la manzana, Hendaia, Hendaya, Manzana, sagardoa, Sagarra, Sagarraren Festa, Sidra, Txopinondo

Anterior post

XIV. "Kirikoketa Besta" en Arizkun, el 2 de noviembre. XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

Siguiente post

Semana de la Sidra en el Caserío Museo Igartubeiti. Sagardoaren Astea Igartubeiti Baserri Museoa.

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomía-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Sagardoaren Astea
Igartubeiti Baserri
Museoa.



Sagarraren Festa
Hendaian, urriaren 20an.



XIV. Kirikoketa Besta
Arizkunen, azaroaren 2an.



"Hip Hip Urri!-October
Children" Sagardoetxean.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



Haur eta helduek Idiazabal gaztaren kata gidatuarekin gozatu zuten.

Comentarios recientes

Niños y adultos disfrutaron de la cata guiada de queso Idiazabal. | Sagardoaren Lurralde en Giro bikaina Astigarragako XIII. Sagar Uzta egunean.

Aritz en Donostiako XXVIII. Sagardo Eguna, irailaren 7an. Hsedfuloi en Sagardogintzan oinarritutako herri kirol lehiaketa XII. Sagar Uztan.

david en Saizar sagardotegia, aurrealde berria eta irudi modernoagoa.

Sagardoaren Lurralde en “Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.